



# Zorionak!

Irakurke askok etxeratu nahi izan duzue Joan Mari Irigoien idazlearen "Lur bat haratago" nobela mardula, baina jasotako gutun ugarien artean zozketa egin beharra zegoen derrigor. Azkenean, argazkian Joan Mari Irigoienekin ageri diren lau lagun hauek irabazi dute Elkarlanean argitaletxeak plazaratutako liburua: Xabi Bengoetxea, Aritz Gorrotxategi, Ainhoa Amunarriz eta Izaskun Manterolak. Zorionak guztiei!

nahi dugu, ahal den neurrian.

**Plana martxan jartzeko lehendabiziko diru partidak aurten izango al dira?**

Dirua izan behar dugu, lehenasunezko ekintzak martxan jartzeko. Dena den, ez dezagun ahaztu gauzak egiten ari garela. Beraz, ez gara hutsetik abiatuko.

**Komunikabideen alorra ere funtsezkoa da. Udalak euskarazko komunikabide lokalak sortzeko asmorik al du?**

Dirulaguntzen bitartez, Udalak euskararen presentzia lagundu eta lehenetsi behar du komunikabide pribatuetan, baina ez du ahalmen ekonomikorik telebista edota irrati bat finantzatzeko.

**Etxebizitzaren arazoak buruhauste handiak ematen ditu Donostian: prezioak garestiegiak dira eta etxebizitza asko hutsik dago. Udalak ezarritako politika egokia al da? Audituz Akular bezalako proiektu erraldoien aurkako kritikak ere entzun izan dira.**

Udalak alokairuan jartzeko 1.500 etxebizitza eraikitzea aurreikusi du, eta horrek 13.000 milioi pezetako inbertsioa eskatuko digu. Hutsik dauden etxebizitzetan, berriz, Udalak ez du inongo eskumenik. Foru Aldundiak benetan hutsik dauden etxebizitzetara zergaren bat jartzea izan daiteke aukeretakoa bat, beharbada.

Bestalde, hirigintza proiektu handiek beti izaten dituzte kritikak, normala eta beharrezkoa da. Audituz Akularri dagokionez, Plan Orokorraren aldaketa bat hasi berri dugu, eta erakusgai izango da. Era berean, proiektu honek izango duen eragina neurtzeko ikerketak eskatu ditugu, eta etxebizitza kopurua gehiegizkoa ote den jakin ahal izango dugu. Emaitzak eskuartearen izanda, hau dena eztabaidatuko da, planak aldaketak izan ditzake eta. Gainera, proiektu honetan interes orokorrak pisu handia du, etxebizitzaren %80 babes ofizialekoa izatea nahi baitugu.

**Sarritan zure alderdiko ildo ofizialaren aurka azaldu izan zara. Azken desadostasuna Elkarririk proposaturiko bake konferentziari buruzkoa izan da.**

Nire jarrerak bat egiten du hauteskundeetarako aurkeztu nuen programarekin, eta alderdiak programa hori onartu egin zuen. Orain koherentea izaten saiatzen ari naiz. Horregatik, Elkarririk Euskadiren normalizazio eta bakerako irtenbideak

bilatzeko eztaibada leku irekia eta anitza dela pentsatzea normala iruditzen zait. Ulertzen ez badugu Elkarririk eztaibada leku bat dela eta bertan parte hartu behar dela, horrek esan nahiko du gure jarrera politikoa irtenbide ausartak aurkitzeko itxiegi dela.

**PP eta PSOEek estatuan sinatutako ituna egokia al da bakea lortzeko?**

Itun horrek ez du ekarriko Euskadinen biolentzia gainditzeko indar demokratikoen batasuna, eta jarritako helburuak ez ditu lortuko.

**PSOeri PPren politika estuegi jarraitzen duela kritikatu izan zaio.**

Alderdiak nortasuna ematen dioten ezaugarriak indartu behar ditu, argiago eta indartsuago azaldu behar du kontrol eta oposizio lanetan. Donostian gobernu zabalagoa izatea nahi nuke, baina daukadana daukat, EA-EAJren erabakia hori izan zelako. Hori horrela da.

**Maiatzaren 13an izango dira auteskundeak; Zer irudituko litzaizuke Eusko Jaurlaritzan PSE-EEren eta PPren arteko gobernu osatzea?**

**Euskararen Planaren aldeko apustua egin dugu**

Hankasartzea litzateke. Euskadik ez du inongo fronte gobernurik behar, nolabait esatearren, gobernu mestizoak behar ditu. Dena den, Euskadinen gobernu mota bat baino garrantzitsuagoa da aro politiko berri bati ekitea, politika egiteko era berri bat ezartzea, elkar ulertzen saiatu eta akordioak bilatzea, eta ondorioz gune berriak eraikitzea. Horrek terrorismoarekin amaitu eta politikaren normalizazioa ekarriko lukeen estatu itun batean gauzatu beharko luke.

